

Nekane Alonso Santamaria

BILBOKO UDALEKO BERDINTASUN SAILEKO ZINEGOTZIA

Martxoaren 8a: Aldarrikapen feministek 100 urte

Emakumeen Nazioarteko Eguna 1911n ospatu zuten lehen aldiz. Borroka iraun duen 100 urteko aldi honetan bizitzarekin eta gizartearekin konpromiso handia hartutako emakumeok mundu guztiko etorbide eta kaleetara irten gara oraindik baliatzea ezinezko egiten zaizkigun eskubideen eskakera eta aldarrikapena egiteko. Arlo politikoan, zibilean, ekonomikoan eta kulturean baldintza berdinekin parte hartzeko eskubideari eman behar diogu garrantzia, baita sexuaren arabera edozein bereizkeria eta horren adierazpen argiena den indarkeria matxista errotik kendu beharri ere.

Gaur, martxoak 8, oraindik ere Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu mundu zein tokimailako datuek onartezinak izaten jarraitzen dutelako. Zehatzago, gure inguruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun formalak lortu bada ere, asko dugu oraindik ere lortzeko. Horrela bada, adingabekoen zaintzaren ardura, gehien bat, emakumeek dute eta erantzukizun horrek ez du, ez balorazio sozialik, ezta ekonomikorik ere.

Horiek horrela, ez da harriztekoa gero, murgildutako ekonomian langile gehienak emakumeak izatea, hiru emakume langiletatik batek aldi baterako



kontratua edukitzea edo emakumeen batez besteko soldata gizonena baino % 20 txikiagoa izatea.

Aintzat hartzen ditut elkarteetan antolatuta dauden emakumeak geure eta komunitate guztiaren bizi-baldintzak hobetzeko funtsezko rola baitute; batez ere, auzoan, auzoak gizarte-mailan berebiziko garrantzia duelako eta etxeko mundu pribatuaren eta hiriko espazio publikoaren arteko zubia delako.

Emakumeok berdintasunezko gizartea aldarrikatu nahi dugu; hau da, familiar, gizartean, arlo sozialean, politikoan, erlijioarenean zein lan-arloan baldintza berdinetan gizonak eta emakumeok baloratuak izan gaitezen berdintasunezko gizartea aldarrikatu nahi dugu. Lanbide-jardueran, familiar arloan, zerbitzuetan eta baliabideetan partaidetza orekatua aldarrikatzen dugu, bizitza pertsonala, familia zein laneko bizitza modu egokian uztartzea ahalbidetzeko.

Horregatik, martxoaren 8 honetan, genero-berdintasunaren alde eta ekintza positiboen politikak garatzearen alde egiteko konpromisoa hartu duen Bilboko Udaletik eta emakumeen elkarteekin batera gonbidatu nahi zaituztegu Bilboko emakume eta gizon guztiok martxoaren 8a ospatzeko antolatutako jardueretan parte hartzera. ■

Adingabekoen zaintzaren ardura, gehien bat, emakumeek dute eta erantzukizun horrek ez du, ez balorazio sozialik, ezta ekonomikorik ere. Horiek horrela, ez da harriztekoa murgildutako ekonomian langile gehienak emakumeak izatea, edo batez besteko soldata gizonena baino %20 txikiagoa izatea

gametxo
HOTELA



Gametxo Auzoa • Ibarrangelu, Bizkaia • Tel.: 94 627 77 10 • www.hotelgametxo.com